

Istripu gutxiago izateko, ondo  
egongo zen  
polikiago ibiltzea.



\*Istripu gutxiago izateko, ondo  
egongo zen  
polikiago ibiltzea.



- Istripu gutxiago izateko, hobe *litzateke* polikiago ibiltzea.
- Istripu gutxiago izateko, ona *litzateke* polikiago ibiltzea.
- Istripu gutxiago izateko, *ondo legoke* polikiago ibiltzea.



Baldíntza irrealearen ondorioa  
adierazteko erabiltzen da forma  
hori, baina IRAGANALDIAN  
bakarrík:

■ Abisatu (izan) balidate, joango nintzen bilerara.



Oraínean edo geroan gauzatzekoak  
díren gertaerei buruzko baldíntza  
írrealak sortzeko:

- Abisatuko balidate, *joango nintzateke* bilerara.
- Hemen balego, merezi bezala *erantzungo nioke*.

Baina ez:

- \*Abisatuko balidate, *joango nintzen* bilerara.
- \*Hemen balego, merezi bezala *erantzungo nion*.



- Ezkerrak hobe **luke** baturik joatea hurrengo hauteskundeetan.
  - \*Ona **izango zen** ezkerrarentzat hurrengo hauteskundeetan baturik joatea.
- Eremu horretan eguzki-panelak ezarriz gero, etengabe **lortuko litzateke** eguzki-energia.
  - \*Eremu horretan eguzki-panelak ezarriz gero, etengabe **lortuko zen** eguzki-energia.



● Egokia (*izango*) *litzateke* zuzeneko publizitatea erabiltzea.

■ \* Egokia *izango zen* zuzeneko publizitatea erabiltzea.

● *Hobe luke* ile-zaku ergel handi horrek bakean utziko balu!

■ \* *Hobe zuen* ile-zaku ergel handi horrek bakean utziko balu!



- Inflazioak behera eginez gero, ondo **legoke** diru-politika lasaitzea.
  - \* Inflazioak behera eginez gero, egokia **egongo zen** diru-politika lasaitzea.
- Guztiz zentzuzkoa (**izango**) **litzateke** botere publikoek giza kapitalaren formaziorako diru-laguntzak ematea.
  - \* Guztiz zentzuzkoa **izango zen** botere publikoek giza kapitalaren formaziorako diru-laguntzak ematea.

